

2015eko urriaren 6an Poliziak Hassanna Aalia saharar ekintzailea egozteko aginduaren aurrean, EH Bildu eta EAJ-PNV Talde Politikoez honako hau adierazten dute:

- 1- 2015eko martxoaren 5eko Lekeitioko Udalbatzak aho batez onartu zuela Hassanna Aalia izeneko saharar ekintzaileari babes politikoa ematearen aldeko aitorpena.
- 2- Hassanna Aaliaren atxiloketa eta Barne Ministeritzaren partetik Espainiar estatutik kanporatzeko agindua eta asilo politiko eskaria ukatzea arbuiatzen duela.
- 3- Hassanna Aalia Espainiako Audientzia Nazionalak bere kanporatze aginduari emandako kautelazko etenaren bitartez babestuta dagoela egiaztatzen du, momentu honetan, Audientzia Nazionalaren behin betiko erabakiaren zain dagoelarik.
- 4- Berrito ere Barne Ministroari dei egiten dio Hassanna Aaliari babes politikoa emateko eskabidea berraztertu dezan, nazioarteko babesa emateko egin duen eskaera onartuta, 12/2009ko Legean onartutakoaren arabera. Izan ere, hura bere herrialdera bueltatzen bada, Marokoko agintaritzak okupatzaileak zigor gogorra ezarriko dio eta, honezkero, ez da kartzelatik bizitza osoan irtengo. Berak politikari arloan nazioarteko aitorpena jasotzeagatik eta saharar herriaren autodeterminazio eskubidearen alde modu baketsuan borrokan dabilen pertsona aktiboa izateagatik sortu da honako egoera hau.
- 5- Berrito ere Marokoko Gobernuaren bidez Mendebaldeko Saharan gertatzen diren Giza eskubideen urraketen aurrean kezka adierazten du eta errepresioarekin amaitu eta saharar preso politikoguztiak aske uztea eskatzen du.
- 6- Berrito ere Saharar herriarekin konpromisoa eta berak legitimoki duen autodeterminazioa eskubidearen defentsan, erreferendum libre eta arautu baten bidez, konponbide justu eta definitiboa lortzeko dauden ekinbide politiko eta sozialei babesa adierazten dio, amaitu gabeko deskolonizazio prozesua amaitu dadin.
- 7- Adierazpen hau Udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinaraziko zaie herritarrei eta baita Espainiako Barne Ministeritzari.